

ELKARRIZKETA MUSTAFA MUSULMAN GAZTEARI

Ez da lehendabiziko aldia Mustafa Cenap Karmel aldizkarian dugula. Benedikto XVIak Turkiara egin zuen bidaiaren ostean elkarrizketa interesgarria egin genion gure lagun musulmanari. Gustuko du gure kultura, euskara batik bat. Horregatik, oraingoan ere, gustura hartu du gure aldizkariaren deia. Hitz bat asko erabiltzen badu gure lagunak, hitz hori elkarrizketa da. Erlijio eta kulturen arteko elkarrizketa bultzatzeko *Tevere Institutua* zabaldu du Erroman beste gazte batzuekin batera.

– Mustafa, nola sortu zen erlijioen arteko elkarrizketa bultzatzeko zentro hau irekitzeko ideia?

Orain dela lau urte etorri nintzen Erromara kristautasuna aztertzeraz, *Nostra Aetate* fundazioaren beka bat jaso ondoren. Vatikanoko erakunde honek katoliko ez diren ikasle ikertzaileei aukera ematen die kristautasuna, fede katolikoaren doktrina ikasteko. Nire ikasketak Aulki Santuaren Unibertsitate Gregoriarrean Erlijioen eta Kulturaren Institutuan egin ondoren, batez ere Erroman ditugun erlijio desberdinen artean –bereziki kristautasunaren eta Islamaren artean, baina beti ere gure adiskide judu, budista eta beste zenbait ahaztu gabe– elkarrizketa bideak ireki ahal izateko gune bat sortu beharra ikusi nuen.

Horrela, nik eta nire adiskide musulman batzuek eta zenbait kristauk bat eginda *Tevere Institutu* zentro honen proiektu-



tua abiabidean jartzea erabaki genuen. Proposamen bat egin genien batez ere Italia eta Turkiaren artean merkataritzan diharduten enpresei. Ongi ikusi zuten gure proiektua eta horrela *Tevere Institutua* sortu genuen, esan den bezala, zentroaren helburua erlijio eta kultura ezberdinen arteko elkarrizketa bultzatzea delarik.

– **Harridura sortu dit zentro hau erlijio eta gizarte mugimendu edo erakunde handien ordez gazte talde batek abian jarria dela ikusteak.**

Bai, garrantzi handia du horrek. Zergatik bultzatu duten ekimen hau gazteek? Herri, erlijio eta kultura desberdinen arteko elkarrizketari hasiera orain bertan emanez gero, etorkizuna guztiok batera egingo dugulako. Honek ez du esan nahi

proiektu hau gazteentzat bakarrik denik, guk ateak zabal-zabal baititugu erakunde, mugimendu eta abarrentzat. Hala ere, garrantzitsua da kontuan izatea gazteok elkarrizketa eraikitzaile bat bultzatzen hasten ez bagara, nekez egingo dugula bakez beteriko mundurik, hots, jendeak bakezko, batasunezko giroa biziko duen mundurik.

– Nortzuk parte har ditzakete *Tevere Institutuan*, eta zer-nolako jarduerak eskaintzen ditu?

Gure zentroa Erromako alde zaharrean dagoen zentro txiki bat da. Horrela, hiri katoliko batean, beraz adiera unibertsalekoan, egonik edonori irekita dagoela adierazi nahi dugu. Argi dago Erroma mugarik gabeko hiria dela; katolikoentzat hiririk behinena, baina ez bakarrik katolikoentzat. Bai, gurera datozen gehienak katolikoak dira, erromesaldi katolikoentzat hiri santua dela esaten dugulako; hala ere, zentro honetan, beste nonbaitetik adiskide judeguak, protestanteak, musulmanak datozenean, guztion artean elkartasun-egintzak egiten ditugu elkar gehiago ezagutzeko. Esaterako, lagun horiek te turkiarra hartzera gonbidatzen ditugu eta postre turkiarra jaten dugu, eta horrela elkar ezagutzen hasten gara eta aurrez aurre hitz egiten.

Baina, horrez gainera elkartze-egintza sakonagoak, antolatuagoak ere egiten ditugu, hots, elkarrizketa “*teveretarrak*” deitzen ditugunak, gure institutua *Tevere* deitzen baita. *Tevere* ibaitik oso hurbil kokatuta gaudelako hasiera eman diegu *teveretarrak* deitu ditugun elkarrizketa hauei, irakasle edo erlijio-bururen bati gonbidapena eginez. Ez dugu propaganda handirik zabaltzen. Benetan honetan interesa duten adiskideei luzatzen diegu deia. Berriz ere nabarmendu nahi dut erlijio-kultura arteko elkarrizketan burutzen ditugula elkartze-egintzarik sakonenak: hots, gonbidatuak 45 minutu ingurutan hitz egiten du, eta gero bertaratuen arteko galdera-iradokizun txandari bidea uzten diogu. Elkartze-egintza oso interesgarria izan ohi da.



– Gure Europako egoeran, gureganatzen ari diren erlijio eta kultura ezberdinak bihotz-zabaltasunez hartu beharra ikusten dugu. Zein da Islamak eskaintzen duen giza eta espirituzko ekarpena?

Oso galdera interesgarria da, gaur egun maiz hitz egiten baita musulmanek batez ere European duten presentziaz. Nik ez nituzke Islama eta Europa bakarrik aipatuko, garrantzi handikoa baita pertsonen hitz egitea. Islamak eta kristautasunak bilgune bateratua, hots, harrerarako jarrera dute; Islamak herentzia hori Abraham-gandik jaso du; hau oinarritzko zera da Islamean eta zoritxarrez adiera honetan Europa bizitzen ari den sekularizazio prozesuaren ondorioz jarrera hori galtzen, itzaltzen ari dela sumatzen dut. Arazo larria da, hain zuzen ere, musulmanek Europari egin beharko lioketen ekarpenik behinena, nire ustetan, harrera hau, abegitsu izate hau, hots, hurkoarenganako maitasuna delako.

Jarrera hau kristautasunarekin bat egiten gaituen topagunea dugu. Koraneko zenbait ataletan eta baita ere profetaren esakunetan egiazko musulmana izateko hurkoa maitatzeak, besteei bihotza zabaltzeak duen garrantzia nabarmentzen da. Egiazko musulman batek beste pertsoneri irekita bizi behar du halakoen izatea ulertu ahal izateko. Hau honela, musulmanak Europan izatea ekarpen handia da, hain zuzen ere, Europaz hitz egiten dugunean ezberdintasuna, kulturak, erlijioak... onartzen dituen proiektu batez ari garelako. Musulmanen mundua bertan izatea onuragarria da. Adibidez, Islama Italian edota Espainian ez da fenomeno berria lehengora itzultzea baizik, hain zuzen ere lehenean presente izan zirelako lurralde horietan. Kristautasuna, judaismoa eta Islama elkarren artean bilduta, nire ustez, Europa osoagoa eta aberatsagoa egingo dute.

– Zenbait herritarren sentsazioa azaldu nahi dizut. Zergatik lotzen dugu Islama indarkeriarekin?

Gaur egun, zoritxarrez, komunikabideetan Islama eta indarkeria elkarrekin bateratu ohi dira. Zerbait nabarmendu nahi nuke. Fundamentalismoa mundu osoan dago, bai Islamean, bai kristautasunean, bai judaismoan, baita sinesgabeen artean. Garrantzi handikoa da borondate oneko pertsona guztiok egiazko elkarriketa bilatzera deituak garela kontuan hartzea. Fundamentalistak, esan dudan bezala, hor izan arren, gutxiengo dira. Hala ere, gaur egun, komunikabideetan indarkeria zale hauen irudia eskaintzen zaigu. Interesgarria da *Islam* hitza bakea esan nahi duen *Salam* hitzetik datorrela kontuan izatea. Eta hau da, hain zuzen ere, musulman garenon egitekoa, bakearen lekuko izatea, beste batzuk zer den egiazko Islama ezagutu eta uler dezaten.

– Pazko Bijilian Benedikto XVI.ak kristau egindako Madi Allam musulmana bataiatu zuen. Orain dela egun gutxi irakurri nuen katolikoek komunikabide batean Fran-

tzian urtero 150-200 musulman egiten direla kristau. Nola baloratzen ditu berri hauek zu bezala musulman praktikante den gazte batek?

Lehen eta behin erlijio-askatasunaren kontzeptua ezagutzeak duen garrantzia nabarmendu nahi nuke. Kontzeptu hau erlijio guztietan ageri da. Ni neu ere kristautasunean erlijio askatasunak izan duen bidea aztertzen ari naiz. Nire tesia kontzilioaren *Dignitatis Humanae* agiriari buruz egiten ari naiz. Kontzilioko agiri hau oinarritzat hartuz erlijio-askatasuna eta gizakiaren duintasuna eskutik elkar harturik dabilta. Garrantzi handikoa da pertsona batek gogoko duena askatasunez aurreratzeko duen eskubidea aitortzea. Ikuspegi honetatik neurtzen dugu Madi Allan edo gure adiskide frantsesek hartutako erabakia. Egia esan, askeak dira sinesmena Jainkoaren eta gizakiaren harremana delako, eta azken honek askatasunez aukeratzeko du, begirune osoa zor zaiola, bokazio hori, hain zuzen ere gizakiaren zer berezia delako, eta bizitzeko biderik egokiena duela uste duelako. Erlijio-askatasuna maila pertsonalean ez



ezik maila sozial eta publikoan ere onartu behar da. Era berean, sinestedun izan nahi ez duten gure adiskideak ere errespetatu behar ditugu.

– Benedikto XVI.aren Aitasantutzako oinarrizko puntu bat erlijioen arteko elkarrizketa dugu. Aita Santuak musulmanen aurrean zenbait egintza esanguratsu burutu ditu, hala nola, Turkiara egindako bisita berezia, zenbait hurbiltasun-zeinu. Zure ustez, Mustafa, Eliza Katolikoak nahiko ahalegin egiten al du erlijioen arteko elkarrizketa-gune hori sortzeko?

Eliza katolikoa, nahiz Aulki Santua, ahalegin handiak egiten ari da erlijioen artean, musulmanen eta kristauen artean, elkarrizketa sortzeko bideetan. Garrantzi handikoa, ederra izan zen Benedikto XVI.ak Istanbulera meskita urdinerako eginiko bisita edota gogora dezagun Joan Paulo II.ak Siriako Damaskoko meskitara egindakoa. Aparteko sinesmena duen pertsona den Benedikto XVI.ak meskita urdinean Mekara begira egin zuen otoitz. Garrantzi handiko zeinua, eta musulmanenganako begirune handikoa izan zen. 138 intelektual musulmanek zinatute dute Aita Santu Benedikto XVI.ari eta beste hainbat patriarka eta artzapezpikuri bidalitako gutun bat. Intelektual hauetariko bostek bisita egin zuten Vatikanora martxoan, eta elkartzeko edozein bat izan zen Erlijioen arteko Elkarrizketarako Aita Santuaren Kontseiluan. Une honetan berri pozgarri bat dugu. Azaroan hiru egunetako elkartzeko bat izango da musulmanen eta kristauen artean zenbait gai teologiko aztertzeko. Azken egunean Aita Santuarekin elkarrizketatzea izango dela uste da. Erlijioen arteko elkarrizketaren arduradunek teologia alorrean ere urratsak emateko erabakia hartu dute.

Jon Korta